**ERREPORTAJEA** KORRIKA 13 ERRETRATUTAN • **GEHIGARRIA** LUZIANORI ELKARRIZKETA
**KULTURA** HASIER ETXEBERRIAK "EULIEN BAZKA" LIBURUA ARGITARATU DU

# BARREN
ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA 2003ko apirilaren 11a/XI. urtea/442. zkia




KORRIKA 13

## Elgoibar ere euskararen alde

"AEK-REKIN HERRI BAT GEROA LANTZEN" (Korrika 13ren lema)

# ZEZEN-BIDE
## AUTO ESKOLA

**San Frantzisko, 43 -1. solairua**
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

ordutegi berria

**1 0:00etatik-1 2:30era**
**1 5:00etatik-20:30era**

**Ego Gain, 4 behea**
(San Andres pasealekutik)
Tel 943 203 455 20600 EIBAR



Egunkaria aurrera!

**Apirilaren 12an eta 1 3an banatuko da, Egunero-rekin batera.**

8 €




## FERMIN MUGURUZA
**Irun meets Bristol. Komunikazioa**

- Fermin Muguruzaren **In-komunikazioa** diskoaren nahasketa berriak, Bristolgo musikariek egina.
- Egunero-rako edizio berezia
- Digipack forrnatua
- 15 abesti: 74 minutuko iraupena

**Harpidedunentzako oharra:**
Diskoaren eskaria egiteko azalpenekin, gutuna jasoko duzue etxean

# 40 URTE 40 ISTORIO

Efi; ELGOIBARKO$_k$IZARRA



## 14 Antonio Azpiazu

Aurreko astean esan genizuen moduan, Antonio Azpiazuren eskutik sartu zen txistua Elgoibarko Izarran. Antonio 1918an jaio zen Elgoibarren. Musika Inazio Bereziartuarekin ikasi zuen eta koruan hil arte jardun zuen kantuan. Udal Bandan ere jotzen zuen saxofoia. Elizako organoa jotzen zuen organista falta zenean eta berak egiten zituen musika arregloak umeen domeketako mezetan. Txistuarekin batera, korala, gitarra eta soinua ere irakasten zituen. Bistan da musikazale amorratua zela Antonio. Gainera, haurren danborradako bultzatzaileetako bat izan zen. Eta Antton Azpiazu semeak esan digunez, dantzari bikaina ere izan zen, Arturo Zubiaurrerekin batera egiten omen zuen aurreskua.

Eta Elgoibarko Izarran txistua berari esker sartu zela esan badugu ere, Anttonek esan digunez, *"gure aitta ez zan txistularixa, ez zan sekula txistulari moduan ibili. Aittak justu jotzen zaban txistua"*. Halere, makina bat haur eta gaztetxok ikasi zuen txistua jotzen Antoniorekin! Antoniorekin lehen pausoak ematen zituzten eta, gero, sakontzea nahi zutenek, Patxiko Etxeberriarengana jotzen zuten.

Baina ez pentsa Antonioren buruan musika bakarrik zegoenik. Futbolean jardun zuen ezkondu zen arte, eta Realarekin lehen dibisioan jokatu zuen.

Antonio euskaltzalea eta abertzalea zela esan digu Anttonek.

Antonio gaztea zela joan zen gure artetik, 60 urterekin, hain zuzen ere. Azken agurra eliza umez beteta zegoela eman zioten, txistuak isilik egon baziren ere. Gerora, hil eta hiru-lau urtera, Antonioren omenezko meza antolatu zen, txistulari eta guzti oraingoan.

*Antton Azpiazu eta Imanol L.Irrafiaga*





## Hildako anonimoak

Gerra prebentiboa. Medikuntzan, gaixotasuna ekiditeko modurik onena prebentzioa da. Orain badirudi bakea lortzeko modu bakarra gerra dela. Garbi dago Bush, Aznar, Blair hirukotearentzat, defentsarik onena erasoa dela.

Misil inteligenteak. Norabidea markatu eta ordenadore bidez bidaltzen dira misil hauek. Toki estrategikoetan erortzeko pentsatuak daude. Helburu militarrak. Baina, misil hauek ez omen dira hain listoak eta, tarteka, jokoz kanpo erortzen dira. Efektu kolateralak. Nahigabe. "Sentitzen dugu" esan eta aurrera.

Su laguna. Ja! Futbol partida batean, talde batek bere etxeko atean gola sartzearen antzekoa. Alegia, amerikarrek botatako bonbak soldadu amerikarren gainean lehertzea. Nahigabe, noski. "Sentitzen dugu", berriz ere.

Eta gerra azkarra. Zer da gerra azkarra? Erasotzen duenak egun bitan lortzea petrolioa? Azkarra al da dozenaka hegazkin militar aireratu eta zaparradarik krudelena balitz bezala ehunka bonba jaurtitzea?

Mundu osoko herritarren kontrako iritziei entzungor eginaz aurrera jarraitu dute hiru mosketeroek.

Hori bai, ez dute euren eskuak odolarekin zikindu nahi. XXI. Mendeko gerrek ez dute hildakorik eragiten. Akziozko pelikula amerikarretan odola bor-bor ikusten da. Errealitatean ez. Joan den iganean, El Mundo egunkarian horixe salatzen zuten kazetariek, horien artean zegoen Julio Angita Parrado berriemaile berezia ere. Argazki eta guzti zetorren. Begira geratu nintzen. Kazetaria, ni bezala, baina oso bestelakoa. Patu madarikatua. Gerraren aurpegi krudelena ez dela apenas islatzen esan eta bera protagonista bihurtu handik bi egunera. Julio Angita bai, bera telebistan agertu da. Badakigu zorigaitzeko gerra honetan hil dela bere lana betetzen zuen bitartean.

Gerrak ere ez dira demokratikoak. Bereiztu egiten da hildakoen artean. Batzuk aurpegia dute, izen abizenak. Besteak, gehienak, anonimoak dira. Edozein kasutan, kontrakoa sinistarazi nahi badigute ere, gerrak beti gerra. Hildakoak, mutilatuak, umezurtzak...

Jasone Osoro

Atal hauek ez dira B.
besteak-beste, pluralta

Kexa ......................................
gehigarria ...................................... 13
kiRolAk ...................................... 20
aG

## Oharra

Datorren barixakuan, apirilaren 18an, ez dugu BARREN kaleratuko. Beraz, Ostiral Santuan ez duzue astekaria jasoko baina hilaren 25ean berriro ere zuen etxeetan izango gaituzue. Datorren astean BARREN itxita egongo denez, buzoian laga ditzazkezue gauzak edo e-posta erabili: barren@elgoibarkoizarra.com. Ondo pasa Aste santuko oporrak!

## AEK EUSKALTEGIAK ETA KORRIKAK ELGOIBARTARREI

Pausoz pauso eta herriz herri igarotzen ari den Korrika 13ak, domekan Elgoibarrera heltzean izan zuen harrera ona bai antxitxika eginez bai animatuz, eskertu nahi dugu. Era berean, Udaleko Euskara eta Kultura Batzordeek emandako laguntzagatik Korrika Kulturala elkarlanean antolatu ahal izateko.

Baita Elgoibarko dendak, tabernak, enpresak, partikularrak zein euskararen alde kilometroa egin duten erakunde, ikastetxe, alderdi eta Korrika lagun guztiek emandako diru laguntzagatik.

Hauetaz gain, Azkue argazkilariari eta AEKko laguntzaile, ikasle eta parte hartzaile guztioi, mila esker zuen laguntza ezinbestekoa izan dugulako.

Halaber, Ikastola, Herri Eskola eta Pilar Ikastetxeari Korrika Txikia antolatzeagatik.

Bukatzeko esan, Korrika hau, 13.a izan arren, ez dagoela inolako malefiziorik, siniskeriaren kontrako antidotorik onena eguneroko lana da. Beraz, orain arte Euskara belaunaldiz belaunaldi biziarazi badugu, etenik gabe jarraitu beharra dugu "Gure Geroa Lantzen", gure hizkuntza beste hizkuntzen parean izan arte. Lortzea bakoitzak dugu geure esku.

Mila esker guztioi. Hurrengoa 2 urte barru.

AEK Euskaltegia

## X. JOSE GURRUTXAGA HAUR KROSA

Ikastolaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu joan den igandean ospatutako X. Jose Gurrutxaga Haur Krosa antolatzen lagundu diguten guztiei, Elgoibarko Udala, Udal Kirol Patronatua, Egotoki Elkartea, Ceramicas Anchustegui, Netto, Alzola Urak, Eroski, Etxekit, Zurich Aseguruak, Basurco Inmobiliaria, Lanbroa Kafetegia, Iturri Taberna, Jai Alai Taberna, El Diario Vasco, Aterpe Taberna, Xigortze Kafeak, Iriondo Kirolak, Urnobitza Aseguruak, Mekanosa, Harzubi Jatetxea, Usua Taberna, Joggers Kirol Arropa, Gorostiza Liburu-denda, Azkue Argazkiak, Mintxeta Atletismo Taldea, Opel Giauto, Hyundai Mendaro Autoak, Gurutze Gorria eta batez ere babeslea izan den KUTXAri. Baita parte hartu duten neska-mutilei ere. Datorren urteko edizioan ere, apirilaren 25ean, laguntzeko prest egongo zaretelakoan, agur bero bat.

Elgoibar Ikastola

k, NAN eto telefono zkia

rtzen IRITZIA eto ESKUTITZAK oto

# Urruzunoren begi ezkutua




## Begietako gutuna

2001ko maiatzaren 4. egunean kaleratutako Begi Izkutuak, zortzi terdietako urbanoa hartu eta Elgoibartik alde egin zuen gizonaren berri eman zuen...... Ia hiru urte pasa dira. Astelehen goizean, Begiak, honako gutun hau jaso zuen:

"Let me go. Quiero volar. Por eso te digo te quiero. Be alone, love, Ez dot asmatzen hitzekin, ezta doinuakin, ezta momentuakin, zutaz maiteminduta nagoela esateko. Opari bat. Musika bat. Letra bat. Zuretzat. La vida continua. La Buena Vida. Horrela dio nere lagun batek. Bakoitza bere bidean, bere horretan. Bila. Zeozerren bila. Musika bila. Atsekabea sendatzen duen abestiaren bila, barneko samiña arintzen duen ahotsaren bila. Ohartzen zera, batzutan logelako iluntasunean, bestetan automobilaren bolantean, edo eta tabemako bazterren batetan, "zirkuituan", ez zarela maitemindu bakarra, ez zarela galtzaile bakarra, ez zarela "cerrado por derribo" egoeran dagoen bakarra. Botika, kalmante bat behar dut. Aspirina bat mesedez. Barkatu, galdu naiz, doinuaren bila nabil. Badakizu, Placebo. Nere arima baretzen duen abestia aurkitu behar dut. "Vamos a engañarnos y dime mi cielo que esto va a durar siempre". Ez da egia, orain badakit. Horregatik noa hemendik, Elgoibartik urrutira, zirkuitoa utzi eta zortzi terdietako urbanoan. Let me go, mesedez." .................................... Beranduegi, pentsatu zuen Begiak.

Eguzkiñe Aranberri

ASTE KARIA

BaRRen

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
s' 943 74 41 12
Publizitatea: =z 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta: barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.corn/barren
ARGITARATZAILEA Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA ASiCt Orbea GEHIGARRIEN ARDURADUNA UXUE Alberdi PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue GERENTZIA Jon Peli Uriguen KOLABORATZAILEAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edume Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.130 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko faurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*

lig k utxa esker

1DANOBAT Ali10111.5 HFIRRAMIENTA

GOITI GRUPO DANOBAT

1EITARTA



• Garbiketa lanetan aritzen den mutil batek esan digunez, Merkatu Plaza azpiko komunak erabat zikinduta uzten dituzte asteburuetan: "Duela pare bat hilabete margotu zituzten, eta dagoeneko horma guztiak zikinduta daude. Asteburuero gertatzen da, eta ondo egongo litzateke, pertsona horiei multak jartzea".

• Emakume batek jakinarazi digunez, Ubitarte auzoko iturriko ura ustelduta dago: Iturria puskatuta egoteaz gain, hertako ura ustelduta dago, eta jolasean ibiltzen diren haurrek edozein gaixotasun harrapatu dezakete".



• Urasandiko bizilagun batek esan digunez, duela bi aste espaloia zulatu zuten ur hodi bat konpontzeko eta oraindik zuloak hor jarraitzen du: "Arduradunei ere esan diet, haina ez didate kasurik egin. Gainera pixka bat gorago ur hodi bat zulatuta dago eta ur asko galtzeaz gain, zarata handia ateratzen du".



• San Roke auzoko bizilagun batek azaldu digunez, San Rokeko zabor kontenedoreetan ez dago pilak birziklatzeko kutxarik: "Denok dakigu pilak ez direla zakarrontzira bota behar, kutsatu egiten dutelako. Udalak erraztasunak jarri beharko lituzke pilak birziklatzeko, eta San Roken ez daukagu erabilitako pilak botatzeko kutxarik".

Barrak, Birrak eta Barreak




©KOKOE 2003021e

aek korrika

# Korrika

## 901




Haizea Emakume Taldea




Morkaiko Mendizale Elkartea




Haritz Euskal Dantzari Taldea




Zazpiki Irratia




Einbiou




Ikastolako langileak




Ikastola

# 3 barren

*"Herri bat geroa lantzen" lemapean ailegatu zen Korrika 13 Elgoibarrera pasa den domekan, apirilaren 13an. Elgoibarko herriak ere geroa euskara ahotan duela landu nahi duela erakutsi zuen. Hainbat eta hainbat herritar baiu ziren korrikaren marbcara eta jende mordoa bildu zen bide eta kale bazterretan. Eguraldi zoragarriak, egunak eta orduak izan zuten zeresanik jendearen erantzunean, eta baita aurrez lose Gurrutxaga haur krosa ospatu izanak ere, haur asko batu baitzen euskararen aldeko jaira.*
*10 kilometro zegozkion Elgoibarri eta 19 eskutatik (talde, elkarte, enpresa, alderdi...) pasa zen lekukoa, inoiz baino gehiago AEK euskaltegikoen esanetan. Hauez gain, Mendaroko Ospitaleko langileek eta In Leike taldeak kilometro bana erosi zuten. Julian Azkue eta AEK euskaltegiaren lagunizaz lekuko aldaketa guztiak jaso ditugu erreportaje honetan.*



Mendaroko Ospitaleko langileak



Mendaroko In Leike



Errotatxo



Gazte Asanblada



Euskadiko Kutxa



IMH- Herri Eskola- BH Institutua - Haurtzaindegia

aek korrika



Euskara Batzordea



Kimetz Elkartea - Etxerat



AEK Euskaltegia - Egunkaria



Elgoibarko Izarra



Etxepe



Txankakua



Pilar Ikastetxeko Guraso Elkartea



C. D. Elgoibar

## Elgoibarko ikastetxeek Debegesak antolatutako "Emakumeak eta lana XXI. mendean" idazlan lehiaketan hartu dute parte



*Estitxu Irisarri, Pilar Ikastetxea*



*Borja Tornos, Ikastola*



*Maialen Olazabal, Institutua*

Elgoibar Ikastolak, Pilar Ikastetxeak, eta Elgoibarko Institutuak Debegesak antolatutako "Emakumeak eta 1 an a XXI. mendean" idazlan lehiaketan hartu dute parte. Txapelketa bi fasetan garatu da. Lehenengo fasean ikastetxe bakoitzak lan bat aukeratu zuen, eta gero lan hori finalera pasatu zen. Irabazlea Eibarko Itzio ikastetxeko Nadia Conlledo izan den arren, ikastetxe bakoitzeko idazlan irabazleak ere, saria jasoko du. Elgoibar Ikastolako Borja Tornos, Pilar Ikastetxeko Estitxu Irisarri eta Institutuko Maialen Olazabal izan dira sarituak.

"Emakumeak eta lana XXI. mendean" idazlan lehiaketa Debabarreneko ikastetxeetako DBH 3. mailako ikasleei zuzenduta dago. Ermua, Eibar, Elgoibar eta Mutrikuko zazpi ikastetxek hartu dute parte. Guztira, 200 ikasle baino gehiago aritu dira lehiaketan. Debegesaren helburua ikasketa tekniko eta teknologikoetan emakumearen presentzia handitzea da. Debabarreneko FP ikasketak burutzen ari diren ikasle guztietatik %13,2a bakarrik dira emakumeak. Azken hilabeteetan "Emakumeak industriara erakartzen" kanpaina jarri du martxan Debegesak, eta lan handia egiten ari da emakumeen artean dagoen langabezi tasa murrizteko.



## Elgoibarko ikastetxeetako haurrek Korrika Txikia egin zuten joan zen apirilaren 4an

Joan zen ostiralean, apirilak 4, Ikastola, Herri Eskola eta Pilar Ikastetxeko ikasleek, Korrika 13ren programaren barnean, Korrika Txilda egin zuten. Eguerdiko 12:00etan elkartu ziren ikasle guztiak King-Kong-en, eta, abiada biziz ondorengo ibilbidea egin zuten: San Frantzisko Kalea, Errosario Kalea, Santa Ana Kalea, Arrillaga Kalea, San Bartolome Kalea, Errosario Kalea eta Plaza Handia. Korrika Txikiari amaiera bikaina emateko, korrikalari guztiek Mikel Laboak eta Ruper Ordorikak Korrika 13 ediziorako konposatu duten kanta abestu zuten Plaza Handian. Ikasle asko elkartu ziren euskararen alde korrika egiteko. Abiadura handiz zeharkatu zituzten herriko kaleak, eta Elgoibarren euskararen etorkizuna sendo datorrela erakutsi zuten.

## Herri Eskolako ikasle eta gurasoak Arantzazura joango dira datorren apirilaren 13an

Elgoibarko Herri Eskolako Guraso Elkarteko Mendi Taldeak antolatuta, datorren igandean, apirilaren 13an, ikasle eta gurasoak joango dira. Goizeko 9:00etan elkartuko dira Plaza Handian, eta autobusez joango dira Arantzazura. Ondoren, Urbiara igoko dira, eta Enaitz (1300m) mendia egin ostean, Arantzazura itzuliko dira, Duruko txabolen ondotik.

Azken irteera joan zen martxoaren 16an egin zuten, Deban egon zen Mendi Itzuli Neurtura. 45 lagun inguru joan ziren, eta hamarretakoa egin ostean atera zuten argazkia. Eguraldi oso ona egin zuela kontatu digute, eta primeran pasatu zuten eguna.



# Elgoibarko KZ Guneak urtebete egingo du datorren apirilaren 1 Gan

## 670 elgoibartar pasatu dira KZgunetik eta horietatik 280k jaso dituzte ikastaroak

Datorren apirilaren 16an Elgoibarko KZguneak urtebete egingo du. Zentro honen helburua Gizarteko Informazio Teknologia berriak jende guztiaren eskura jartzea da. Momentuz 670 elgoibartarrek eman dute izena KZgunean, eta horietatik 280k jaso dituzte ikastaroak. Urtebete honetako balorazio positiboa egin dute KZguneko arduradunek. Hasiera batean eskaini ziren ikastaroak, ez ziren erabiltzailearentzat behar bezala egokitu, eta gaur egun, norbanakoarentzat egokiagoak diren ikastaroak eskaintzen dira.



Apirileko ikastaroak

Elgoibarko KZguneak ikastaro berriak antolatu ditu apirilerako. Batetik, IT KZ Gunea izeneko 3 ikastaro emango dira, interneti buruzko ezagutzarik ez duten pertsonentzat. Ordenadorea erabiltzen, informazioa bilatzen, posta elektronikoa, Outlook Express-aren konfigurazioa eta erabilera, Netscape Mail, eta beste hainbat gauza erakutsiko dira.

50 urtetik gorako pertsonentzat Nagusiweb ikastaroak dituzte. Informazioa bilatu eta ordenagailua modu erraz eta egoki batean erabiltzen irakatsiko zaie.

Azkenik, beraien ezagutzak handitu nahi dituzten pertsonentzat hainbat seminario antolatu dira: "Adobe Acrobat Reader", "Foros eta FAQ", "Zure egunkaria irakurri" eta "Asteburu bat Euskal Herrian".

KZguneko erabiltzaile guztiak ESI (Europar Software Institutua) ziurtagiria ateratzeko aukera izango dute. Ziurtagiri honekin informatika teknologietan dituzuen ezagutzak baieztatzen dira, eta ebaluaketa hau gainditzen dutenek IT Txartela eskuratuko dute, berak dakarren abantailekin (kurrikuluma hobetu, oposaketarako puntuak,...)

Honetaz gain, KZguneak nabigazio gela bat du, eta 18 urtetik gorako guztiek, interneten dohainik nabiga dezakete.

Ikastaro hauetan interesaturik daudenak KZgunean jaso dezakete informazio gehiago, goizeko 9:00etatik 13:00etara edo arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara.

# Danobat Taldeko bazkideen ohiko batzar nagusia izan zen apirilaren 4an

## 143 milioi euro fakturatu zituen iaz Danobat taldeak

Makina Erremintaren Institutuko areto nagusian ospatu zen Danobat Taldeko bazkideen ohiko batzar nagusia joan zen apirilaren 4an. Bertan, 2002ko kontuak errepasatu eta aurtengo ekitaldirako dauden aurrikuspenak komentatu ziren.

Makina Erreminta sektorean izandako eskaeren jaitsierak eta nazioarteko egoera ekonomiko nahasiak markatutako 2002. urtean, esplotazio kontuen emaitza ona izan dutela azaldu zuten.

Produktu berrien garapena eta ikerketari dagokionez, azken 5 urteetan garatutako produktuek salmenten %75 baino gehiago suposatu dute Danobat Taldearentzat.




*Anton Echeverria Danobat Taldeko zuzendari nagusia, Jesds Astigarraga Lehendakaria, Iñigo Ucht Zuzendari-gerentea, Jo0 Benito Aramberri Idazkaria, Jos.C Luis Bastida Errektorea.*

Nazioartekotzeari dagokionean, "Overbeck Herborn GmbH" barneen artezketa sektorean aitzindari den enpresa alemaniarra eskuratzearen inguruko gorabeherak azaldu ziren. Inbertsio honekin Danobaten asmoa Alemanian eta honen eragin esparruko merkatuan sendo ezartzea da. Proiektu honetan MCCk izandako partehartze teknikoa eta finantziarioa ere aipatu ziren.

Etorkizunari begira, bi zutabe garrantzitsu aipatu ziren: produktu berrien garapena eta merkaturatzea, eta informazio eta komunikazio teknologien bidez gestio prozesuen hobekuntza.

## IMH "Lan Gaitasunen Balidazioa" proiektuaren azken pausoak ematen ari da

Joan den apirilaren 2 eta 3an Makina Erremintaren Institutuak VAP (Lan Gaitasunen Jabetzearen Balidazioa) proiektuaren azkenaurreko mintegian hartu zuen parte. Oraingoan Niza izan zen bazkideen topagunea, Leonardo Programa honen azken ukituak lantzeko.
Bi egun hauetan bazkide bakoitzak bere esperientzien garapen monografikok aurkeztu zituzten, datorren urriaren 2, 3 eta 4an itxiko den proiektu honen saiakera modura.
Frantziako Hezkuntza eta Lan Ministerioak eta lanean jasotako gaitasunak balidatzeko sistema baten froga-pilotuan oinarritu da proiektu hau.
Froga-pilotua herrialde ezberdinetan egin da, lan-profil ezberdinekin, eta azkenean jasotako ondorio guztiak parekatu dira. IMH Txandakako Ingeniaritzako ikasleek enpresetan eskuratutako gaitasunak balidatzeko metodologian oinarritu da.



## BARREN internazionala

Ez baldin bazenekiten ere, BARREN mundu guztiko hainbat tokitara iristen da, ia bost kontinenteetan bizi baitira BARREN jasotzen duten elgoibartarrak; Australian, Filipinetan, Mexikon, Suitzan... Hau gutxi balitz, mundua alda dezaketen erabakiak hartzen diren lekuen aurrean ere irakurri daiteke gure astekaria. Ikusi bestela Ramon Ortegak bidali digun argazkia. Estatu Batuetako hiriburuan, Washingthonen dagoen Kapitolioaren aurrean atera zuen argazki hau Estatu Batuek Iraken aurkako erasoa hasi baino bi egun lehenago.





## Merkatu Plazako dendariek bi afari zozketatu dituzte

Hilabete honetan bi lagunentzako bi afari zozketatu dituzte Merkatu Plazako dendariek. Olegario Gonzalez eta Pedro Arrillaga izan dira irabazleak, beraz, beraiek aukeratutako pertsona batekin Gabi jatetxean afaldu ahal izango dute. Datorren hilabetean, 60 euroko lau txeke zozketatuko dira.

## Debegesak enpresak sortu nahi dituzten emakumeei zuzendutako ikastaroa antolatu du

Iaz lortutako emaitza ona kontuan izanik, enpresa edo negozio bat sortzea nahi duten emakumeei zuzenduta, kurtso berria antolatu du Debegesak.

Ikastaroa maiatzaren 5ean hasiko da, eta partehartzaile bakoitzak, ordu t'erdiko asistentzia teknikoa jasoko du. Honekin batera, Enpresa Gestioan 42 orduko formazio eskainiko zaie. Emakumeak lan munduan barneratu eta emakumezkoetan dagoen langabezi tasa gutxitzea da ikastaroaren helburua. 2002ko edizioan, Elgoibar, Ermua, Mutriku eta Debako zortzi emakumek hartu zuten parte.

Ikastaro hau Europa Gizarte Fondoak finantziatu du Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren laguntzaz. Beraz, ikastaroa doan izango da, %100eko diru languntza jaso baitu. Informazio gehiago 943 82 01 10 telefonoan.

## Minusbaliotasun fisiko edo sensoriala duten pertsonentzako oporraldien programa martxan da

Elgoibarko Udalak jakinarazi duenez, aurreko urteetan bezala, Gipuzkoako Gutxitu Fisikoen Federazio Koordinatzaileak 2003rako "Minusbaliotasun fisiko edo sensorial duten pertsonentzako oporraldien programa" antolatu du Foru Aldundiko Gizarte ekintzarekin batera.

Interesatuek Elgoibarko Udaleko Gizarte Ongizate Sailean eskuratu dezakete programa honi buruzko informazio gehiago. Eskaerak aurkezteko epea 2003ko apirilaren 15ean bukatuko da.

# ZERTARAKO APROBET)(ATUKO DUZU ASTE SANTUA?



## MANUEL ROBLEDO

57 urte, torneroa

Normalean Aste Santuan ez naiz kanpora joaten, baina aurten ama gaixo dago, eta bera bisitatzera joango naiz. Aste Santuan jende ugari ibiltzen da errepidean, denak presaka eta ez zait gustatzen.

## AINARA URANGA

32 urte, administraria

Hemen inguruan ibiliko gera, Egun batzuk Zarautzen pasauko ditxugu, eta gero igual Ordesa aldera jungo gera. Pazko Astia aprobetxatzen dogu ahal dogunian.





## JOSE MANUEL LORENZO

48 urte, arotza

Zamorakoa naiz. baina hemen geldituko naiz. Aste Santuan bidaiatzea arriskutsua da, eta nahiago dut hemen gelditzea. Zamorara trafiko gutxi dagoenean joaten naiz.

## ANE GALA

11 urte, ikaslea

Aubixara jungo naiz Atxutxiamaikakin. Lagunekin jolastuko dot, eta mezetara ere jungo naiz. Eskolako lanak ere ein biharko ditxut. Nik nahixo ditxut udako oporrak, luziauak dia eta egualdi hobia citxen dau.





## SERGIO AGIRREGOMEZKORTA

12 urte, ikaslea

Elgoibarren geratuko naiz, normalian ez gera kanpora juten Aste Santuan. Lagunekin jolasteko aprobetxauko dot, eta mezetara ere jungo naiz.

53 urte, garbitzailea

Lehenengo deskantsatzeko asmua dakat. Bestalde, azkoitiarra naizenez, bertara jungo naiz Ostiral Santu gabeko prozesiva ikustera. Oso politxa izaten da eta elgoibartar asko joaten da.



Anchilstegui
Sanyfer

ESPOSIZIOA
ALMAZENA
BULEGOA

Olaso industrialdea
Olasope, 5 • 20870 - ELGOIBAR
Tel: 943 74 33 44 - 74 23 71
Faxa: 943 74 37 11

SUKATU
S.COOP

**440,1■414 d. com.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA

BARREN ASTEKARIA

ko apirila/XI. urtea/442. zkia

# elkarrizketa

**"LUZIANO" GOITIZENAREKIN EZAGUNAGO DEN LUCIO RUIZ-POVEDA MARGOLARIA 1931. URTEAN JAIO ZEN ELGOIBARKO SANTA KLARA KALEAN. 6 URTE ZITUELA BILBORA JOAN BEHAR IZAN ZUEN ETA PARWRA ONDOREN, GERRA ZIBILARENGATIK. HALA ERE, MAITASUN BEREZIA SENTITU IZAN DU BETI ELGOI REKIKO, ETA DUELA GUTXI AITORTU DU "ESPAINIAKO HERRI GUZTIETAN ZEHAR, 4ADA DESAGERTURIKO SANTA KLARA KALE HAREN BILA" JARRAITZEN DUELA. AGIAN HORREGATIK ASMATU DU LUZIANOK BERE KOADROETAN DENBORAREN JOANA HORREN ONGI ISLATZEN, BEGIRA DAGOENARI OROITZAPENAK HATZ PUNTTEKIN UKITZEA POSIBLE DELA SINESTARAZTERAINO.**



## Luziano

" KOADRO PERFEKTUAK EGITEA ERRAZA DA, TRUKO ASKO DAO"

*L UCIO RUIZ-POVEDA, "LUZIANO", ELGOIBARREN JAIO ZEN 1931. URTEAN. PARISEKO ERROMANTIZISMOAK MOZKORTUTA BI HAMARKADATAN MAITASUNAREN HIRIA HARTU ZUEN HABIATZAT ETA MUNDUAREN LUZE-ZABALETAN BIDAIATU OSTEAN, MADRIL ETA ZARAUTZEN ARTEAN BIZI DA LUZIANO, BIHOTZA UKITU DIOTEN TXOKORIK MAITEENAK ETA OROITZAPENAK LIENZO GARDENETAN AMETS ERAN ISLATZEN DITUEN ARTISTA. DONOSTIAN APIRILAREN 6RA ARTE IZAN DUEN ERAKUSKETAN IZAN GINEN KARISMA IKARAGARRIKO GIZON HONEKIN, ETA BERE MARGOLANEN ARMONIAK BESARKATUTA, HITZ EGITEKO AUKERA EMAN GENIEN ZER KONTATU ASKO DUTELA ARGI UZTEN DUTEN LUZIANOREN BEGI URDINEL*

# Luziano

# "1 \ire imajinaziotik,





I Zein oroitzapen gordetzen duzu Elgoibarrez, zure haurtzaroaz?

Bai, txikitatik neukan zerbait barruan. Hasieran lagunei marrazkiak egiten nizkien baina besterik ez. Elgoibarren ez zitzaidan ezer falta. Gogoratzen dut guk Bernardo Ezenarrorekin ikasten genuela artea eta, behin, haren seme Roman Ezenarrok, Sigman lan egiten zuenak, lana eskaini zidala. Nik honela erantzun nion: "beno...nire planak beste batzuk dira, baina...nire arreba has daiteke?". Hurrengo astean hasi zen arreba Sigman lanean.

Zein ziren, bada, zure planak?

16 urterekin jada ziur nekien margolari izan nahi nuela Bizikleta hartu eta Irunera joan nintzen. Han, "Reunian de Artistas Vidrieros"-en lan egin nuen hilabete batzuetan elizetako beirateak egiten. Baina hori izan zen nire jubilazioa. Ez dut geroztik ofiziorik izan. Hasieran, "sala de fiestas"-etan eta karikaturak egiten hasi nintzen, eta ondo joan zitzaidan trena hartu eta Parisera joatea erabaki nuen arte. Han, Montmartre deskubritu nuen eta maitemindu egin nintzen: pintoreak, alboan soinua jotzen ari zen musikaria...Orain turismoarekin xarma guztia galdu du, lehen askoz erromantikoagoa zen. Urte batzuetan turistentzat margotzen aritu nintzen bertan, beraz; baina adin batetik aurrera, hura utzi eta beste bide batzuk topatu behar dira, eta Parisen geratu nintzen galerientzat, erakusketentzat etab. margotzen.

"MUNDUAREN BESTE I
ZURE HERRIAN BERTA
GAUZARIK THIMENA I
HUNKITZEI

I Asko bidaiatua zara, ezta?

Parisetik itzuli ostean, Iberiar penintsula osoa goitik behera zeharkatu dut, herriz herri, txoko galduenak topatuz, ikusiz, argazkiak ateraz...Maroko eta India ditut, batez ere, estimutan: zoragarria da herrialde horiek duten xarma. Iraken ere egon nintzen, baina dezepzionatu egin ninduen; nik "Bagdad-eko lapurra" ipuina nuen gogoan, eta lurralde lau hark ez zuen ipuinekoarekin zerikusirik. Libanon, Turkian, Mexikon, Kanadan eta AEBetan ere izan naiz, baina bidaiatzea, azkenean, gutxiene-

# oitzapenetatik sortzen ditut koadroak"



FARA JOAN GABE,
IRKITZEN DUZUN
DAITEKE GEHIEN
ENA."

koa da, munduaren beste puntara joan gabe, zure herrian bertan aurkitzen duzun gauzarik txikiena izan daiteke gehien hunkitzen duena.

I **Leku eta pertsonaia konkretuak marrazten dituzu?**
Ez. Pintatzen dudanean ez dut aurrean paisaia edo argazkiaren beharrik. Nire imajinaziotik, oroitzapenetik sortzen ditut koadroak. Ez dira leku konkretuak; bestela, fotografikoegia gertatzen zait. Eta hori da, hain zuzen, nire margoek duten seilu berezia: sorginduak dirudite, existituko ez balira bezala, ametsak balira bezala. Hori lortzea da zailena, dagoena deskonposatzea. Koadro perfektuak egitea erraza da, truko asko dago.

I **Herri abandonatuek hunkitzen zaituzte,ezta?**
Izugarri gustatzen zaizkit denboraren joana grabaturik duten lekuak. Gainera, nire margotzeko erara asko egokitzen dira. Nire koadroek, herrixkak benetan nolakoak izatea gustatuko litzaidakeen islatzen dute. Arkitekto bat banintz bezala, herriak sortzen ditut nire imajinaziotik.

I **Oso estilo berezia duzu.**
Urte askoko garapena da erakusketa honetan ikus daitekeena, eta oraindik ikasten jarraitzen dut. Baina gauza batez harro nago: hau guztia nire kreazioa da, ez dago inoren influentziarik. Pinturan, norbaitek koadro bat ikusi eta firma begiratu gabe zurea dela jakitea izan dezakezun satisfakziorik handiena da.

**Nolako garapena izan du zure pinturak?**
Puf! Hona iristerako zenbat txapuza egin ote ditudan! Lehen detaile askorelcin margotzen nuen, orain, aldiz, detaileak ezabatu eta iradokizunari uzten diot lekua. Urtean 20-30 koadro apurtzen ditut bat ere penarik gabe. Denbora alferrik galtzea dela irudituko balitzait, urtero pare bat hilabete botako nituzke zaborrontzira.

I **Ez da erraza pinturatik bizitzea, ezta?**
Nik ez dut arazorik izan, beti zoriontsu izan naiz. Parisen nahiko diru irabazten nuen eta diru horrekin Zarautzen estudio bat erosi nuen eta Madrilen atiko bat. Nire betiko ametsa zen itsaso gainean estudioa izatea. Ez dut beste lanik egin behar izan. Oso pozik eta oso ondo.

**Horrenbeste urtean han-hemen, istorio asko izango duzu kontatzeko.**
Istorioak milaka, nik ez baitut monumentuak ikusteko bidaiatzen, jendearen biziera ikusteko baizik. Indiako jendea gustatu zitzaidan. Gogoan dut nola Benaresen, gaixo zeudenak Ganges ibaira joaten ziren hiltzera eta, lokatzetan gerriraino sartuta, betiko gauzez hitz eginez heriotzari itxoiten zioten. Oso bihotz oneko jendea da, oso espirituala. Behin, 4 urteko umetxo batek esku ahurra erakutsiz dirua eskatu zidan, nik, txantxetan, keinu bera egin eta ez nuela esan nion, orduan berak zapi batetik txanpon txiki bat atera eta niri eman zidan. Ezin izan nien malkoei eutsi.



"ARKITEKTO BAT BANINTZ BEZALA, HERRIAK SORTZEN DITUT NIRE IMAJINAZIOTIK."

"HAU GUZTIA NIRE KREAZIOA DA, 12 DAGO INOREN INFLUENTZIARIK. "

# atzera begira

## pausoz pauso



Luzianok Indiara egin zuen bidaia batean ateratako argazkia.



Goiko ilaran, ezkerretik eskumara: Amalia Ruiz Poveda, Eugenio Ruiz Poveda (t) eta Cristina Ruiz Poveda (t). Behean ezkerretik hasita: Jose Mari Ruiz Poveda, Cristina Rodriguez (t), Maria Flora Ruiz Poveda, Luziano eta Maria Luisa Ruiz Poveda.



Parisko Montmartre auzo ezagunean kalean margotzen zuen garaian.

## besteen ahotan



**Pili Martinez** eta **Paula Pelaezek** esan digutenez "Luziano oso pertsona atsegina da. Gainera, oso elgoibartarra dela esango nuke, beti oroitzen da Elgoibarrez eta bertako jendeaz. Daukazun onena gogorarazten dizun pertsona horietakoa da, izugarrizko karismadun gizona da eta berarekin ondo sentitzea ia derrigorra dela esan liteke. Oso pertsona erraza da. Margolari gisa, berriz, oso estilo pertsonal eta originala du, bere berea.
Egia esan, zaila da Luzianori kritika txarrak egitea. Alde txarrak edukiko ditu, baina ez dira erraz aurkiizen".

# informazioa

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 11 | Etxeberria (Errosario kaleanj | Etxeberria |
| 12 | Yudego | Yudego |
| 13 | Ibañez | Ibañez |
| 14 | Bidasolo | Bidasolo |
| 15 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 16 | Fernandez | Fernandez |
| 17 | Zabaleta | Zabaleta |
| 18 | Zabaleta | Zabaleta |
| 19 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 20 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 21 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 22 | Bidasolo | Bidasolo |
| 23 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 24 | Fernandez | Fernandez |
| 25 | Yudego | Yudego |

**FARMAZIAK**

IBAÑEZ, Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ,
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

*eguerdiko 2ak arte

**OKINDEGIA**

| | |
|---|---|
| 13 domekia | Fotero |
| 17 eguena | Ibarrenea |
| 18 barixa kua | Idarraga |
| 20 domekia | Doña Mercedes |
| 21 astelehena | Eizagi rre |

## INTERESEKO TELEFONOAK

**OSASUNA**

| | |
|---|---|
| Anbulatorioa | 943 03 26 10 |
| Planning-a | 943 74 29 50 |
| Alkohohko Anonimoak | 943 74 03 85 |
| D.Y.A (anbulantzia) | 943 46 46 22 |
| Gurutze Gorria | 943 74 38 64 |
| Mendaroko Ospitalea | 943 03 28 00 |
| Odol Emaileak | 943 74 39 36 |

**GARRAIOAK**

| | |
|---|---|
| Eusko Trenbideak | 943 74 04 42 |
| PESA (Eibar) | 902 10 12 10 |
| Taxi geltokia | 943 74 08 98 |

**UDALA**

| | |
|---|---|
| Euskara Zerbitzua | 943 74 43 66 |
| Udal Kirol Patronatua | 943 74 44 15 |
| Kultura Zerbitzua | 943 74 21 58 |
| Mendaroko Udala | 943 75 61 00 |
| Ongizate zerbitzua | 943 74 10 08 |
| Udaletxea | 943 74 10 50 |
| Udaltzaingoa | 943 74 13 94 |

**BESTELAKOAK**

| | |
|---|---|
| Elgoibarko Izarra | 943 74 16 26 |
| Kiroldegia | 943 74 44 15 |
| Kontsumo Bulegoa | 943 74 30 88 |
| Liburutegia | 943 74 35 25 |
| Musika Eskola | 943 74 21 45 |
| Mintxeta | 943 74 43 15 |
| Parrokia | 943 74 08 42 |
| Postetxea | 943 74 15 47 |

## ASTE SANTUKO MEZAK eta ELIZKIZUNAK

| | Hilak 13 Erramo Igandea | Hilak 14 Astelehena | Hilak 15 Asteartea | Hilak 16 Asteazkena | Hilak 17 Ostegun Santua | Hilak 18 Ostiral Santua | Hilak 19 Larunbata | Hilak 20 Pazko Igandea |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| PARROKIAN | i i :00 Prozesioa, bedeinkazioa eta meza 12:30 Meza | 16:30/20:00 Penitentzia ospakizunak (Euskaraz) | 16:30/20:00 Penitentzia ospakizunak (Gaztelaniaz) | | 10:00/12:00 Banakako penitentzia 19:00 Azken afariko ospakizuna 22:00 Jaunaren aurreko otoitza | 18:00 Jesusen heriotzaren ospakizuna 20:00 Gurutz bidea | 21:00 Bazko Bijilia | 10:30 Meza nagusia eta prozesioa 12:30 Meza eta bataioak |
| SANTA KLARAN | 9:30 Prozesioa, bedeinkazioa eta meza | | | | 17:30 Azken afariko ospakizuna 21:30 Jaunaren aurreko otoitza | 9:00 Irakurgaien ordua 11:30 Gurutz bidea 16:30 Jesusen heriotzaren ospakizuna | 22:00 Bazko Bijilia | 9:30 Meza |
| MADALAN | 8:30/12:30 Prozesioa, bedeinkazioa eta meza | | 20:00 Penitentzia ospakizunak (Euskeraz) | 20:00 Penitentzia ospakizunak (Gaztelaniaz) | 19:30 Azken afariko ospakizuna 22:00 Jaunaren aurreko otoitza | 10:00 Gurutz bidea 17:30 Jesusen heriotzaren ospakizuna | 20:30 Bazko Bijilia | 8:30/12:30 Mezak |
| SAN LORENTZON | | 20:00 Penitentziak 21:00 Penitentziak (San Antolin) | | | 18:00 Azken afariko ospakizuna | 19:00 Jesusen heriotzaren ospakizuna | | |

2003-IV- 11

# Hiru talde elgoibartarrek eskuratu zituzten sariak "Elgoibarko Herria" Instrumentu Taldeen II. Lehiaketan

## "Soinuen Laratza" talde elgoibartarrak originaltasunaren saria irabazi zuen

Donostia eta Irungo taldeak nagusitu ziren "Elgoibarko Herria" Instrumentu Taldeen II. Lehiaketan, baina instrumentu talde elgoibartarrak ere fin aritu ziren eta 3 sari eskuratu zituzten. Oinarrizko mailan, hau da, 12 urtera bitartekoan, Irungo "Txiki Eolk" (gitarra, bi kontrabaxu, soinua, flauta eta 5 bibolin) taldea izan zen onena epaimahaiaren iritziz. 240 euroko saria irabazi zuten. Bigarren saria herrian geratu zen, "Jade" talde elgoibartarrak eskuratu baitzuen bigarren postua. Bi bibolinek, txeloak eta pianoak osatzen zuten talde instrumentala eta 210 euroko saria lortu zuten.



*"Jade" talde elgoibartarra bigarren postuan sailkatu zen oinarrizko lehen mailan.*

Oinarrizko Bigarren mailan, 12tik 16 urtera bitartekoan, alegia, 9 taldek hartu zuten parte eta "S.O.S" talde donostiarrak irabazi zituen lehen sariaren 300 euroak. Gernikako "Astarka So!" taldea sailkatu zen bigarren postuan eta "Palahuer" donostiarrak hirugarren. Maila honetan "Soinuen Laratza" talde elgoibartarrak originaltasunaren saria eskuratu zuen. "Le Basque" iparraldeko txisturako partitura bati egindako arregloek eta eszenatokian jantzi zituzten jantzi bereziengatik lortu zuten saria. Antton Alberdiren moldaketei esker txisturako prestatutako pieza batean oboea, bibolina, pianoa eta perkusioa txertatu zituzten.

Azkenik, 20 urtera bitarteko mailan Irungo "Big-Band" taldea izan zen irabazlea. Irundarrek 360 euroko saria poltsikoratu zuten. Maila honetan "Sax-Band" elgoibartarrek eskuratu zuten hirugarren saria eta honi zegozkion 300 euroak. Epaimahaikoen iritziz maila oso ona erakutsi zuten lehiaketako partaide guztiek eta Musika Eskolako auditorioa jendez gainezka egon zen.

# ARGIA astekaria ezagutarazteko kanpaina




BARRENen ale honekin batera, ARGIA astekariaren 3 ale doan jasotzeko aukera eskaintzen duen postal bat jasoko duzu, ARGIAk bere burua ezagutzera emateko aurrera daraman kanpainaren barruan. ARGIAREN 3 ale horiek jaso nahi baldin badituzu beraz, postala bete eta bidali (ez du seilurik behar). Bestela, 943 37 15 45 telefonora deitu (Edurnez galdetu) edo zure datuak eta eskaera harpide@argia.com helbidera bidali. "Euskal prentsak bizi duen une zail honetan, denok eskain genezakeen laguntzarik onena, hain zuzen ere, hauxe da: euskarazko egunkaria eta euskal prentsa erosi eta irakurtzea".



# "Eulien Bazka" nobela poliziakoa kaleratu du Hasier Etxeberriak

## Kazetari eta telebista aurkezle ezagunaren laugarren nobela da

Hasier Etxeberria idazle elgoibartarrak "Eulien Bazka" nobela poliziakoa argitaratu du Susa argitaletxearen eskutik. 16tik gora liburu argitaratuak ditu telebistako aurkezle eta kazetari ezagunak eta honakoa laugarren nobela izan da. Genero beltza edo poliziakoa guztiz interesgarria iruditzen zaiola adierazi digu, "guztiz interesgarria da bi arrazoigatik: istoria edo kontakizunari aurrera joaten laguntzen dio; badago intigra bat, badago suspentse bat, badago azenario bat irakurlia aurrerantz tiratzeko, ondo eginda dagoenian, klaro. Bestetik, ezerri buruzko nobela edo idazkizuna izan gabe denbora eta espazio bati buruz berba egiteko aukera eskaintzen dau. Normalian begirada oso zorrotzakin. Istorioak kontatzeko erreten bat bezalakoa da eta bestetik gizarteari buruz hitz egiten lagatzen dau, horretaz hitz egiten jartzen garela adierazi gabe".




### Ez da nobela tristea

Hasierrek ez dela nobela tristea argi laga nahi izan du, "Ez dezala inork pentsa nobela beltza izanagatik, nobela triste baten aurrean gaudenik: alderantziz, eta orain arteko irakurleek behintzat poz handia erakutsi didate". Idazterakoan zailtasunik handiena, bera, Hasier, bezalakoa den irakurle bati zuzendutako kontakizun bat egitea izan dela aitortu digu. "Neure buruari egin behar izan dizkiot tranpak, amuak bota, sarea jaurti eta mila lekutan koipea jarri, neu asper ez nadin. Horregatik izan da oso idazketa gozatsua".

Idazle askok bilatzen dutena lortu duela gaineratu digu Hasierrek, pertsonaia bat sortu du, "pertsonaje bat eraiki dodala uste dot eta bixar edo etzi errekuperatu dezaket, agian". Daniel Arruti da eleberriko protagonistaren izena, "Entomologoa da, euliez jakituna, eta Ertzantzak gorpuen zahardadea edo adina zehazteko deitzen dio. Behin esku eta bururik gabeko emakume baten gorpua aurkeztuko -diote eta emakumea ezagutzen duela konturatuko da. Horixe da azenarioa edo suspensearen sorburua"..












# Portu eta Txurruka pilotariek Udaberri Sariko finala jokatuko dute

## Bestalde, Debarroko Pilota Txapelketa martxan da

Lagunak Pilota Eskolako Markel Portu eta Iker Txurruka pilotariek- kadete mailako Udaberri Sariko finala jokatuko dute zapatu honetan, apirilaren 12an, Oñatiko pilotalekuan arratsaldeko 16:30ean. Finalean hernaniarrak izango dituzte aurrez aurre. Sailkapen ligaxkan 9 partidutatik 8 irabazi zituzten elgoibartarrek eta finalaurreko bi partiduak ere nahiko erraz irabazi zituzten Debako Euskal Jolas taldeko pilotarien aurka. Tamalez, Markel Portu eskuko minez dabil eta finala jokatu gabe gera daiteke eta jokatzen badu ez du sasoirik onenean egingo. Asier Guemez izan daiteke bere ordezkoa.



*Asier Guemez eta Iker Txurruka Debarroko Txapelketa jokatzen ari dira.*

Debarroko Txapelketa martxan da

Debarroko Pilota Txapelketa duela pare bat aste hasi zen jokatzen. Kadete, jubenil eta nagusien mailako pilotariak ari dira parte hartzen eta finala ekainaren 14an jokatuko da Elgoibarren, Lagunak Pilota Eskola ari baita aurten antolakuntza lanetan. Momentuz Debabarrenako taldeen aurka ari dira jokatzen elgoibartarrak: Elgetako Oskarbi, Debako Euskal Jolas eta Eibarko taldeen aurka. Debabarrenako maila bakoitzeko bi bikoterik onenek Debagoienako bikoterik onenen aurka jokatuko dituzte finalaurrekoak ekainaren lean eta 8an.

# Jose Irusta sanmigeldarrak irabazi du Sorabrzeko Bolo Txapelketa



Sanmigeldarrak izan ziren jaun eta jabe Gipuzkoako Hiru Txirlo Bolo Txapelketako bigarren jardunaldian. Soraluzeko San Andres auzoko bolatokian jokatu zen txapelketan 83 bolarik hartu zuten parte. Guztietan onena Jose Irusta izan zen 7 txirlo bota ostean eta bigarren postuan beste sanmigeldar bat sailkatu zen 5 txirlo bota ostean, J.M. Arrillaga, alegia. Eibarko Asola Berri taldeko Bittor Rodriguez sailkatu zen hirugarren postuan 5 txirlo bota ostean. Hurrengo jardunaldia Azkoitiko Floreaga auzoan izango da apirilaren 12an arratsaldeko 16:30etan.

# Egoitz Morak brontzezko domina irabazi zuen Tunezko Nazioarteko Judo Txapelketan

Egoitz Mora elgoibartarrak Tunezeko Nazioarteko Judo Tomeo batean hartu zuen parte Espainiako selekzioarekin joanda. 23 urtez azpiko mailan lehiatu zen 90 kiloz azpiko kategorian eta brontzezko domina eskuratu zuen. Lehen konbatean Skande Hachicha tuneztarraren aurka borrokatu eta galdu egin zuen.

Tunezdarrak zaletuen babesa izan zuen eta ustekabean harrapatu zuen Egoitz azken unean. Ondoren, torneoa irabazi zuen tunezdarrak. Dena dela, Egoitzek burua altxa eta brontzezko domina irabazteearren borrokatu ahal izan zuen. Egipziar bat, Quatar herrialdeko ordezkari bat eta Cameruneko Rorton Melaping judokak utzi zituen bidean elgoibartarrak.



# Jose Gurrutxaga izan zen 10. Haur Kroseko protagonista

## Ikastetxe guztietako 410 korrikalarik hartu zuten parte



lgoibarko X. Jose Gurrutxaga Haur Krosak Eizena ematen dion Jose Gurrutxaga 81 urteko alleta beteranoa omendu zuen pasa den domekan, Plaza Handian. Berak moztu zuen lasterketei, sinbolikoki bada ere, hasiera ematen zien zinta plazan bildutako ehunka ikusle eta parte hartzaileren txalo artean. Elgoibar Ikastolak antolatutako haur krosean 1987-1996. urte bitartean jaiotako 410 atleta gaztetxok hartu zuten parte eta 14 lasterketa izan ziren guztira. Amaieran parte hartzaile guztiek domina bana jaso zuten eta Jose Gurrutxagak omenaldi beroa jaso zuen. Jose Luis Etxaniz Elgoibar Ikastolako lehendakariak oroigarri bat eman zion eta Joseren ilobak lora sorta bat.

### I ra_lba_z_l ak

| Izena | Jaiotze urtea | Denbora |
|---|---|---|
| Leire Arizmendi | 96 | 1'26" |
| Ibon Goikoetxea | 96 | 1'24" |
| Amaia Loiola | 95 | 1'23" |
| Ibon Belaustegi | 95 | 1'13" |
| Ainhitze Etxeberria | 94 | 2'32" |
| Andoni Riaño | 94 | 2'20" |
| Ane Urain | 93 | 2'22" |
| Josu Espilla | 93 | 2'18" |
| Nahia Menbrillera | 92 | 3'52" |
| Borja Diez | 92 | 3'17" |
| Ane Gala | 91 | 3'51" |
| Antxon Segundo | 91 | 3'14" |
| Maialen Salaberria | 90 | 6'18" |
| Unai Cabo | 90 | 5'14" |
| Enara Arquillo | 89 | 6'46" |
| Arkaitz Azkoitia | 89 | 5'09" |
| Lara Urain | 88 | 6'55" |
| Aitor Arrillaga | 88 | 5'01" |
| Leire Apellaniz | 87 | 6'55" |

# Urduñara izango da Morkaiko Mendizale Elkartearen irteera apirilaren 13an

Urduña inguruan trabesia izango da Morkaiko Mendizale elkartearen hurrengo irteera apirilaren I 3an, domeka honetan. Goizeko zortziretan, abiatzeko intentzioa dute Plaza Handitik.

Nerbioi eta Ibaizabal ibaien sorrera ingurutik pasatzen den trabesia polit bat egingo dute animatzen direnek. Denera sei bat ordutako ibilaldia izango da. Hala ere, Bizkaiko autobus gidarien grebak aurrera jaraitzen badu, baliteke ibilaldia azken orduan aldatzea. Beraz, grebak jarraituko balu, beste zonalde batetara abiatuko lirateke trabesia antzeko bat egitera. Autobusaren prezioa 5 eurotakoa da bazkideentzat (10 euro bazkide ez direnentzat).



**Finalista Eguna**

Bestalde, finalista egunerako (ekainak 8) urteroko mendi lehiaketako partaide izan nahi duten guztiek, igo dituzten mendian zerrendak ahalik lasterren entregatu beharko dituzte Morkaikok Errosario kalean duen egoitzan.

## EMAITZAK

### Futbola

Elgoibar 3— Aloña Mendi 1 (Inf.)
Pedrusco 3— Idiazabal 3 (1. erreg.)
Zarauz 0 — Haundi 3 (Pret.)
Ordizia 1— Elgoibar 5 (Jub.)
Aitzgorri 1— Elgoibar 0 (Kad.)
Urki 0 — Elgoibar 6 (Neskak)

### Esku pilota

**Udaberri saria**
M.Portu/1.Txurruka 22
Arrizabalaga/Uranga 16 (Kad.)
Ansola/Balzola 21
Ormazabal/Zabaleta 22 (Nag.)
**Debarroko Tzapelketa**
Guemez/Txurruka 17
Arrizabalaga/Uranga 22 (Kad.)
Loiola/Balzola 22
Lopez/Moro 6 (Nag.)

### Areto futbola

Xota 9 — Kenci Elg. 7 (Nazional B)
Lanbroa 2— Makax 2 (1. maila)
Goierri A 4 — Lojantzi 4 (Jub.)
Lapramendi 2 — Lojantzi 5

### Eskubaloia

Pagoaga Elg. 17 — Leizaran 10 (Kad. nesk.)
Cometel Elg. 19 — Leizaran 17 (Jub. nesk.)
Tecnomeca Elg. 31 — El Pilar 26 (Kad. mut.)
Pneumax Elg. 36 — El Pilar 27 (Juh. mut.)
Tecnifuelle Elg. 26 — Ormaiztegi 21 (Senior mut.)
Aloña-Mendi 24 — Pagoaga Elg. 13 (Kad. nesk.)
Aloña-Mendi 14 — Cometel Elg. 18 (Jub. nesk.)
Bergara 26 — Gaur Elg. 29 (Jub. mut.)

## AGENDA

### Areto futbola, Kiroldegian

**Zapatua, 12**
13:30 Lojantzi — Zarauz (Jub.)
16:00 Kenci Elg. — Sestao (Nazional B)

### Futbola, Mintxetan

**Zapatua, 12**
16:30 Haundi — Mundarro (Pret.)
18:15 Elgoibar — Mondragon (1. erreg.)
**Domekia, 13**
12:00 Elgoibar — aretxabaleta (Kad.)
16:00 Elgoibar — Bergara (Neskak)

2003-IV- 1 I

)1 4 Langai
Euskal Lan Zerbitzua

Durangoaldeko enpresak **Catia V.5 operadorea** behar du.
**Erref. 98096/3**

Durangoaldeko enpresak **kontablea** behar du. **Erref. 99118/4**

Donostialdeo enpresak **enpresaritzan diplomatua** behar du.
**Erref. 98672/3**

Urola Erdiko enpresak **komertziala** behar du. **Erref. 98803/2**

Bilboko enpresak **sendagilea** behar du. **Erref. 98423/4**

Debabarreneko enpresak **RRHH zuzendaria** behar du.
**Erref. 98599/2**

Debabarreneko enpresak **salmenta arduraduna** behar du.
**Erref. 98598/3**

Durangoaldeko enpresak **ingeniaria** behar du. **Erref. 98098/3**

Urola Erdiko enpresak **kaldereroa** behar du. **Erref. 99104/2**

Durangoaldeko aldi baterako enpresak **soldatzailea** behar du.
**Erref. 97526/4**

Urola Erdiko enpresak **mekanikoa** behar du. **Erref. 99107/2**

Azpeitiko aldi baterako enpresak **mekanikoa** behar du.
**Erref. 98524/3**

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu 901222901 telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauetako batera deitu: Elgoibarko Institutua 1PeioJuaristi) 943 74 80 19 edo IMH hora RamOn) 943 74 41 32 telefonora.

## Lana

### ESKAERA

* Erreforma elektrikoak egiten ditut. Merke. 13. **667 08 41 24 (Vitorio)**

• Mutila buzoneo lanak egiteko prest. 1T **943 74 44 63 (21:00etatik aurrera)**

• Mutila garbiketa lanak egiteko prest. **te 943 74 44 63 (21:00etatik aurrera)**

• Emakumea etxeko lanak egin, umeak edo gaixoak zaintzeko prest. 1:r **943 03 03 21 (Mertxe)**

• Emakumea umeak zaintzeko prest. Klinika auxiliar esperientziaduna. **n. 943 74 30 04 (Elena: 20:00etatik aurrera)**

### ESKAINTZA

• Emakumea behar da 16:30etatik 19:30etara 6 urteko umea zaintzeko. **a 943 74 37 91**

• Neska euskalduna behar da etxeko lanak egiteko.
**TT 943 74 24 37 (12:00-13:00)**

• Eibarko jatetxeak kamarera behar du. **Ir 943 12 72 22**

• Basarten zerbitzaria behar da. **tr 943 74 34 26**

• Barrarako kamarero euskalduna behar da. **s 943 74 04 90**

Mutil edo neska behar da tabernan lana egiteko. Astean zehar arratsaldez, eta asteburue-tan. Txandaka.
**tr 943 74 28 97**

**OHARRA:**
Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

## Bestelakoak

• Urrezko eraztuna galdu dut. Ezti koloreko perla bat dauka.
tr **943 74 44 06**

• Apirilaren4an, 11:00 eta 11:30ak bitartean erlojua galdu nuen Kiroldegian. Balio sentimentala dauka. S'aritu egingo da. z• **943 74 45 21 (M² Jose)**

• Flauta galdu dut. Lanazko funda txuri gorria dauka, K letrarekin.
z- **943 74 04 34**

• Ume baten betaurrekoak galdu ditut. (Montura metalikoa) z- **943 74 38 29**

## Salerosketak

4· Alcatel mobila salgai. Prezio onean.
trr **637 11 01 97**

2. eskuko kotxea salgai.
TT **658 70 33 42**

• autokarabana salgai. 6 plazakoa. 22.000 km. Egoera onean, extra ugari. 30.000 euro, negoziableak.
**tr 943 60 45 31**

• Karabana salgai. Katusa 3750.
Tr **943 74 21 64**

• Kotxea salgai.Rover 216, GSI. Merkea. t2 **635 72 30 26**

• Txakurrentzako edo antzerako erremolkea behar dut. s **943 74 40 62**

+ Renault Clio 1.2 salgai.
**tr 653 01 10 43**

• Nissan Serena 1.6 gasolina salgai. 2500 euro. **TT 669 166 207**

* Aulki elektrikoa salgai. Merkea.
**Tr 943 74 22 05 (Pilar)**

• Argazki kamerantzako objetiboak salgai. Sigma 70-210mm eta 50mm. Egoera onean eta merke.
**tr 943 74 43 74**

• Alpine radiokasetea salgai. 12 cdko kargadorea, 2 altaboz. 300 euro.
**tr 679 11 34 46 (Jose Luis)**

♦ Citroen ZX Turbo Diesel salgai.
SS-AW . tr **943 74 04 54**

• 15.000m²ko lur saila salgai, 15 urteko pinuekin. tr **943 03 35 03**

Ford Mondeo 1800 injeccion salgai. Egoera berezian.
**629 63 52 03**

• Citroen Xsara salgai. 1900 TD. SS-BF. Extra askorekin.
**610 65 34 52 (Antonio)**

• Motorra salgai. Kawassaki GPX600. Egoera onean. 900 euro.
tr **943 76 64 01/ 605 71 24 73**

## Agurrak

• Zorionak ama Iciri, apirilaren 12an urteak beteko dituelako. Josu, Esther, Maria, eta bereziki Ane eta Nerearen partez.

Zorionak **Ikastolako DBH leko neskei,** Eskubaloian Gipuzkoako Txapelketara iristeagatik.



• Mila esker pasarazi zeniguten asteburuagatik. Zorionak, bi muxu eta agur. **Izar** eta **Lur.**



+ Zorionak **Eneko** eta **Ibani** apirilaren lean 6 urte eta 10ean 3 urte bete zituztelako. Gurasoen partez.

## Etxebizitzak

• Etxea alokatzen da Luz Ardidenen Aste Santurako 6 lagunentzat. 360 euro.
**v 615 75 02 86**

* Etxea salgai Elgoibarko erdialdean. Eraberritua, kanpora begira, berogailua. Bizitzera sartzeko moduan.
tr **943 75 62 94/635 70 64 47**

+ Etxea salgai Elgoibar erdialdean. 3 logela, sala, komuna, despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. Merkea.
**tr 679 29 13 79**

Etxea salgai Elgoibar erdialdean. Eraberritua, altzariekin. Bizitzera sartzeko moduan. **661 42 60 77**

Etxea salgai Pedro Muguruzan.
*Tr* **943 74 35 35**

• Pisua salgai San Roken. Eguzkitsua, berritua, komuna, berogailu zentrala.
**v 943 74 01 74/609 15 58 30**

♦ Logela alokatzen da. tr **943 74 18 81**

## Lokalak

• Madalako etxe berrietan 5,5 m2ko trasteroa alokairuan. a **605 77 34 53**

## Partikularrak

Lehen hezkuntzako klaseak ematen ditut. Talde txikiak. 1t **943 74 20 94 (Yolanda)**



*Zorionak **Irati** atzo 5 urte bete zenituelako. Aitatxo, amatxo eta Nerearen partez. Patxo haundi-haundi bat, sorgin txiki!



*Zorionak **Aitorri,** apirilaren 7an 3 urte bete zituelako. Etxekoen eta bereziki, osaba Inaxioren partez.



♦ Zorionak Juliri, hilaren 12an 77 urte beteko dituzulako. Familiakoen partez, ondo pasa eguna!



*Zorionak **Eneko Cerezo** larunbatean 5 urte beteko dituelako. Guraso eta anaiaren partez.



*Zorionak Iboiri, apirilaren 9an 3 urte bete zituelako. Etxekoen eta bereziki Nerea eta Unairen partez.



*Zorionak **Jokin,** hilaren 10ean 11 urte bete zenituelako. Etxekoen eta Mendarokoen partez.



♦ Zorionak **Judith,** hilaren 4an 2 urte bete zenituelako. Gurasoen partez.



*Zorionak **Miren,** hilaren 17an 8 urte beteko dituzulako. Etxekoen partez.



*Zorionak **Mikeli,** hilaren 14an 3 urte beteko dituzulako. Familiakoen eta bereziki gurasoen partez.



♦ Zorionak **Jokini,** hilaren 13an 3 urte beteko dituelako. Gurasoen, amamaren, Sergio eta Anaren partez.



* Zorionak Luciari, hilaren 9an 9 urte bete zituelako. Familiakoen partez.



Zorionak **Casilda** Criadori, apirilaren 9an 80 urte bete zituelako. Seme eta biloben partez.



*Zorionak **Ikerri,** apirilaren 17an 6 urteko beteko dituelako. Familiakoen partez.



*Zorionak **Nereari,** apirilaren 13an 4 urte beteko dituelako. Familiakoen partez.



♦ Zorionak **Elur Zubiaurreri,** apirilaren 22an 2 urte beteko dituelako. Familiakoen partez.



♦ Zorionak Yoni hilaren 17an 2 urtetxo beteko dituelako. Anaren eta familiakoen partez.



♦ Zorionak **Unairi,** hilaren 13an 2 urte bete zituelako. Etxekoen eta bereziki, Ainhoaren partez.



♦ Zorionak **Oihane,** apirilaren 10ean 4 urte bete zenituelako. Gure sorginari, familiakoen eta bereziki, anaia Jonen partez.



♦ Zorionak **Mikel Astigarragari** apirilaren 16an 3 urte beteko dituelako. Muxu handi bat etxeko guztien partez.



♦ Zorionak **Aner Telleriari,** apirilaren 15ean urtebete egingo duelako. Aupa superboy! Guraso, aitona eta izeba-osaben partez.



* Zorionak hilaren 13an 6 urte beteko dituen gure **zapotxo zintzoari. Gurasoen** eta Pelloren partez.



♦ Zorionak **Cristinari,** hilaren 12an 15 urte beteko dituelako. Egun ona pasa! Gurasoen eta ahizpa Amaiaren partez.



♦ Zorionak **Asier,** gaur 3 urte egin dituzulako. Aurpegi horrekin gure "bitxoa" izaten jarraituko duzu. Muxu handi bat gurasoen eta bereziki, Aitorren partez.



*Aupa Pakitirringindin! Azkoipa, azkoipakito, pakito, pako... Zenbat izen mutil bakar batentzat. Gurera etorri zinanetik, kriston tipua zerala ikusi dou. Zorionak **Ibai!** Ondo segi 17 urtien bila! Klaseko lagunen partez.



sZorionaki **Iratiri** bere lehen urtebetetzean. Etxekoen eta bereziki Aneren partez.

# agenca

2003-IV- 11

## 11 BARIXAKUA

**19:30 KONTZERTUA**
Taldea: "Tenoklok: Combo Jazz Taldea"
I.Bereziartua Musika Eskolako auditorioan

**22:00 ZINE FORUM-A**
"Dos vidas en un instante"
Kultur Etxean
Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea auditorioan

**22:00 KALAMUAREN EGUNA**
Gaztetxean
Sarrera: 3 euro
Antolatzailea: Gazte Asanblada

## 12 ZAPATUA

**10:00 WU-SHU TXAPELKETA**
Olaizaga Kiroldegian

**16:30 ELGOIBARKO LAGUN TALDEA TXIRRINDULARI SARIA**
Irteera: Plaza Handian
Helmuga: Santa Klara kalean
Antolatzailea: Elgoibarko Lagun Taldea

**18:00 WU-SHU ARTE MARTZIALEN OPENA**
Olaizaga Kiroldegian

## 13 DOMEKIA

**9:30 KORRIKAREN AMAIERA IRUÑAN**
Autobusaren irteera: Sigmako zubitik
Antolatzailea: Elgoibarko AEK Euskaltegia

**10:15 UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA**

**12:30 UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA**
Herriko Antzokian

**18:00 PA,RROKIAKO ABESBATZAREN ASTE SANTUKO KONTZERTUA**
San Bartolome Parrokian
Zuzendaria: Ander Simal

## 15 MARTITZENA

**19:30 BILERA**
Gaia: Einbiou Abertzaleen Plataformaren bilera
Kultur Etxean

## 25 BARIXAKUA

**19:00 ARGAZKI ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA**
Egilea: Inge Morath
Lola Garridoren bilduma
Kultur Etxeko erakusketa gelan
Maiatzaren 10era arte

## KONTZERTUAK

**Udal Musika Banda**

Elgoibarko Udal Musika Bandak kontzertua eta .kalejira eskainiko ditu domekan, apirilaren I 3an. Kalejira goizeko 10:15ean hasiko da. Kontzertua, berriz, eguerdiko 12:30ean hasiko da Herriko Antzokian. Jose Antonio Osororen zuzendaritzapean honako pieza hauek joko dituzte: "Pepita Creus" (P. Perez chovi), "Orpheus in the Underworld" (J. Offenbach), "Amor" (G. Ruiz), "Viva Navarra" (J. Larregla), "Glenn Miller Story" (G. Miller).

**Parrokiko Abesbatzaren kontzertua**

Parrokiko Abesbatzak Aste Santuko kontzertua eskainiko du apirilaren 13an, Erramu Egunean, arratsaldeko 18:00etan. Ander S imalen zuzendaritzapean honako pieza hauek abestuko dituzte lehen zatian, "Laudate nomen domini", "Popule meus", "Ave Maria", "O magnum mysterium", "Christus factus est" eta "Canticorum iubila". Ondoren, Juan Luis Agirre organistak saioa eskainiko du. Bigarren zatian, "Ige herouvimy", "Regina coeli", "In Monte Oliveti", "Stabat mater" eta "Aita Gurea" piezak interpretatuko ditu Parrokiako Abesbatzak.

**ZINE kluba**




## "Blody Sunday"

**Zuzendaria: Paul Greengrass.**

Irlandako Iparraldean, Derry hiriko kaleetan 1972 ko urtarrilaren 30ean eskubide zibilen aurka ematen ari ziren azken erasoak zirela eta deitutako manifestaldiaren ondorioz izandako gertakizunen egun osoko kronika da film hau. Berlinaleko epaimahaiak, gertakizun historiko garrantzitsuaren berri ematen duelako saritu zuen batetik, eta bestetik, Irlanda eta Britania Handiaren arteko gatazka-prozesuaren lehertaraztea suposatu zuen gobernu britainiarrak espetxeratze prebentiboen inguruko neurriek eragindako manifestaldiak eta honen kontra erabilitako indarkeriaren filmaketa bikaina baloratu zuelako.

2003 -IV- 11

## KIROLA

Wu-Shu Txapelketa

Zapatu honetan, apirilaren 12an, Euskadiko Wu-Shu txapelketa jokatuko da Olaizaga Kiroldegian 10:00etatik aurrera. Wu-Shu arte martziala telebistako Kun-Fu telesailarekin egin zen ezaguna eta zapatu honetan Euskadiko onenak ikusteko aukera izango da Olaizaga kiroldegian eta dohainik. Goizeko saioa 10:00etan hasiko da. Haur eta helduek hartuko dute parte eta 14:00ak arte luzatuko da. Arratsaldean, berriz, 18:00etatik aurrera arte Martzialaren Opena ospatuko da, helduen borrokekin. Bertan Ramon Quina, Munduko Wu-Shu txapeldun ohia izango da, bera baita txapelketa honen bultzatzaile nagusia. Ramon Quina gaur egun Euskadiko boxeatzaile profesional bakarrenetarikoa da eta Olaizaga Kiroldegian Taichia irakasten du.

Txirrindulari proba

Zapatu honetan, apirilaren l2an, arratsaldeko 16:30ean, Elgoibarko Lagun Taldeak antolaturik, kadete mailako XIV. Elgoibarko Lagun Taldea Saria txirrindulari proba ospatuko da. Irteera Plaza Handian izango da eta helmuga, berriz, Santa Klara kalean izango da. Guztira 43 kilometro izango dira.

## IRTEERAK

Ibilaldia Getxo eta Bilbora

Jubilatuen Biltokiak Getxo eta Bilbo aldera txangoa antolatu du apirilaren 30erako, domekia. Irteera goizeko 9:00etan izango da Plaza Handitik. Prezioa 20 eurotakoa da, bidaia eta bazkaria barne. Bazkalostean dantzaldia eta oparien zozketa egingo da. Informazio gehiago jasotzeko eta izena emateko Jubilatuen Biltokira jo. Telefonoa: 943 74 05 26.

## JAIAK

Kalamuaren Eguna

Kalamuaren Eguna ospatuko da gaur, barixakua, Gaztetxean. Gazte Asanbladak antolatu du eta bigarren edizioa izango da gaurkoa. Gaueko 22:00etatik aurrera, erreketa, kalamuazko pastelak jan, infusioak hartu, etab. egin ahal izango da. Honez gain Gasteizko "Kuku Batzar" antzerki taldearen antzezlana ikusteko aukera izango da. Sarrera 3 eurotakoa izango da.

Korrikaren bukaera Iruhan

Korrika, apirilaren 13an bukatuko da Iruñean. Hori dela eta, AEK euskaltegiak autobusa jarriko du. Irteera goizeko 9:30ean izango da Sigmako zubian, autobusaren prezioa, berriz, 6,5 eurokoa. Joan nahi duenak zuzendu Plaza Txikian dagoen AEK euskaltegira edo deitu 943 74 13 32 telefonora apirilaren 11 baino lehen.

ELGOIBAR, Herriko Antzokian

"Los Lunes al Sol"
11, zapatua: 19:30-22:15
12, domekia: 19:30-22:15
13, astelehena: 22:15

"Una pandilla de altura"
12, domekia: 16:30

"Amor con Preaviso"
17, eguena: 22:15
18, barixakua: 19:30-22:15

"Las Hermanas de la Magdalena"
19, zapatua: 19:30-22:15
20, domekia: 19:30-22:15
21, astelehena: 19:30-22:15

"Spy Kids 2"
20, domekia: 16:30

"Bloody Sunday" (Z.K.)
24, eguena: 22:15

"Mortadelo y Filemon"
25, barixakua: 22:15

EIBA

"Destino Final"
11, barixakua: 19:30-22:15
12, zapatua: 17:00-19:30-22:30
13, domekia: 17:00-19:30-22:30
14, astelehena: 19:30-22:15
15, martitzena: 19:30-22:15
16, eguaztena: 19:30-22:15

"Recien Casados"
11, barixakua: 19:30-22:15
12, zapatua: 17:00-19:30-22:15
13, domekia: 17:00-19:30-22:15
14, astelehena: 19:30-22:15
15, martitzena: 19:30
16, eguaztena: 19:30

ut du ;;+.11:1 lauzkeen einandlthen
Ikhkuteril:TallIZURI/111111:.



## "Los lunes al sol"

Zuzendaria: Fernando Leoin de Aranoa.
Antzezleak: Javier Bardem, Luis Tosar, Jose Angel Ejido.
Lanik gabe geratu den langile talde espainiar batek tabeman pasatzen ditu orduak beraien bizimoduari zentzua atera nahian. Harrotasuna eta duintasuna itzuliko dien lan eskaintza baten zain daude, baina bien bitartean miseriak familiak apurtzen ditu. Film onenaren Urrezko Mazkorra irabazi zuen Donostiako zinemaldian eta Oscar sarietan atzerriko filmik onenen artean izendatuta izan zen.

# erretratu zaharra

2003-IV- 11



Aste honetako erretratu zaharra Pedro Agirregomezkoktak laga digu. 1944. urteko otsailaren 4an ateratakoa da, Aitzbizkar Goiko baserri atarian. Egun honetan Jose Aranberri eta Maria Urrutiaren ezkontza ospatu zuten. Ikusten den moduan, jende ugari bildu zen ospakizunean. Ezagun asko ageri dira erretratuan, baina denen izenak gogoratzea oso zaila egin zaigu. Hala ere, argazki dotore hau jartzea erabaki dugu, eta ziur norberak bere burua ezagutuko duela.



*ESKERTZA*

*2003ko otsailaren 27an, 80 urte zituela hil zen*
*SIMON GARATE OLAÑETA "Armaxio"ren sendiak*
*bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,*
*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



# D J.Iustondo, S.L.

EDARI BANATZAILEAK



*3 eta 6 botitetako*

*rest*at%.en

kax






Errioxako **David Moreno** bodegak

- Errioxako ardoak
- Urteko ardoak
- Kriantzak, erreserbak,...
- Cavak, "Jumes Serra", "Faustino", "Martinez", "Juve Camps"...
- Orujoak
- Kontzerbak



*San Roke, 32 - 34 Onstituto parean)*

*Tet. 943 74 09 92*


I. IRRATSAIO
Lehiaketa
etorkizuna
1/45 ze
~ura S ct
atze
12–16 urte
bitarteko gazteentzat
15 min ukol
Binaka
ta utako
ipritsai
prestatu eta ikastotaka
irratian emitituko duz
SARIAK:
9111P3 erreproduzitza ak,
Personal 'tal Ag dak,
kirol bo zuek nahi
u ena
lze emat o eta inforinazio
gehlagorako bidali e-maila lehenballehen.--
4151
helbidera zeuon izenekin
Iilk3ESLEAK:
21."
DANOBAT
www.danobat.com
Radm Eibar
SFIL.
104.0